**EBAZPENA, 2022KO AZAROAREN 16KOA, ETXEBIZITZAKO GIPUZKOAKO LURRALDE ORDEZKARIARENA, AZKOITIAN FLOREAGAN BABES OFIZIALEKO 14 ETXEBIZITZAREN BEHIN-BEHINEKO ESLEIPENDUNEN ZERRENDEN ESLEIPENDUNEI EGINDAKO ETXEBIZITZA ESLEIPENAK ALDATZEN DITUENA. ZERRENDA HORIEK 2022KO IRAILAREN 12KO EBAZPENAREN BIDEZ ONARTU ZIREN**

**AURREKARIAK**

**1.-** Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko martxoaren 11ko Aginduaren bidez, hasiera eman zitzaion Azkoitiko (Floreaga) araubide bereziko babes ofizialeko 14 etxebizitza errentamendu-erregimenean esleitzeko prozedurari.

Agindu horren Laugarren aurrekarian adierazten zenez, “prozedura horren bidez esleitu beharreko 14 etxebizitzetatik 1 mugikortasun urri iraunkorra duten pertsonentzat egokituta dago, eta hiru logela eta 74,09 m2-ko azalera ditu. Gainerako 13 etxebizitzetatik, 1 logela bakarrekoa da, eta 50,24 m2-ko azalera du. 5 etxebizitzak bi logela dituzte eta 41,83 m2 eta 61,05 m2 arteko azalera dute. 7 etxebizitzak hiru logela dituzte eta 58,94 m2 eta 78,22 m2 arteko azalera dute.”

Hamalau etxebizitzetatik zazpi logelaren kopurua adieraztean akats bat dagoela egiaztatu denez, 2022ko azaroaren 3ko Aginduaren bidez (EHAA, 218. zk azaroaren 15ekoa) zuzentzen da 2022ko

**RESOLUCION DE 16 DE NOVIEMBRE DE 2022 DEL DELEGADO TERRITORIAL DE VIVIENDA EN GIPUZKOA POR LA QUE SE MODIFICAN LAS ASIGNACIONES DE VIVIENDA A LOS ADJUDICATARIOS DE LAS LISTAS DE ADJUDICATARIOS PROVISIONALES DE 14 VIVIENDAS DE PROTECCION OFICIAL EN AZKOITIA, EN FLOREAGA, APROBADAS POR RESOLUCIÓN DE 12 DE SETIEMBRE DE 2022**

**ANTECEDENTES**

**1.-** Por Orden de 11 de marzo de 2022, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes se inicia el procedimiento de adjudicación en régimen de arrendamiento de 14 viviendas de protección oficial de régimen especial en Azkoitia, en Floreaga.

El antecedente Cuarto de dicha Orden señalaba que “del total de las 14 viviendas a adjudicar mediante este procedimiento, 1 vivienda está adaptada para personas con movilidad reducida de carácter permanente, tiene tres dormitorios y una superficie de 74,09 $m^2$; de las 13 viviendas restantes, 1 vivienda es de un dormitorio y tiene una superficie de 50,24 $m^2$; 5 viviendas son de dos dormitorios y tienen una superficie de entre 41,83 $m^2$ y 61,05 $m^2$; 7 viviendas son de tres dormitorios y tienen una superficie de entre 58,94 $m^2$ y 78,22 $m^2$.”

Al haberse constatado un error en la indicación del número de dormitorios de siete de las catorce viviendas, por Orden de 3 de noviembre de 2022 (BOPV nº 218, de 15 de noviembre) se corrige

martxoaren 11ko Aginduaren Laugarren Aurrekari hori.

**2.-** Etxebizitzako Gipuzkoako lurralde-ordezkariaren 2022ko maiatzaren 16ko Ebazpenaren bidez, esleipen-prozeduran onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak onartu ziren, baremazioan onartutakoek lortutako puntuazioa eta parte hartzen duten kupoa adierazita.

**3.-** 2022ko irailaren 12ko ebazpenaren bidez, behin-behineko esleipendunen zerrendak eta etxebizitzak esleitzeko itxaron-zerrendak onartu ziren. Behin-behineko esleipendunen zerrendetan, hamalau etxebizitzetatik zazpitan logela-kopuruan izandako akatsa antzeman aurretik esleipendun bakoitzari etxebizitza jakin bat esleitu zaiola jasotzen da. Horrela, kasu batzuetan esleitutako etxebizitza ez da egokia esleipendunaren bizikidetza-unitaterako.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**Lehena.-** 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 50. artikuluak xedatzen duenez, etxebizitzak Agindu horren 47. artikuluan aipatzen diren kupoen, etxebizitzen egokitzapenaren eta prozeduran sartutako pertsonek edo bizikidetza-unitateek lortutako puntuazio-ordenaren arabera esleituko dira, 51. artikuluan aipatzen den baremoa aplikatuz.

**Bigarrena.-** 2022ko martxoaren 11ko Aginduaren xedapen-zatiaren bederatzigarren apartatuak ezartzen du logela bakarreko sustapen honetako etxebizitzak gehienez 2 kideko bizikidetza-unitateei esleituko zaizkiela; bi logelako etxebizitzak gehienez 4 kideko

dicho Antecedente Cuarto de la Orden de 11 de marzo de 2022.

**2.-** Por resolución de 16 de mayo de 2022 del Delegado Territorial de Vivienda en Gipuzkoa se aprueban las listas de admitidos/as y excluidos/as en el procedimiento de adjudicación, con expresión de la puntuación obtenida por los admitidos en la baremación y el cupo en el que participan.

**3.-** Por resolución de 12 de setiembre de 2022 se aprobaron las listas de adjudicatarios provisionales y las listas de espera para la adjudicación de las viviendas. Las listas de adjudicatarios provisionales incluyen la asignación de una vivienda concreta a cada uno de los adjudicatarios que se ha realizado antes de la detección del error en el número de dormitorios de siete de las catorce viviendas, de manera que en algunos casos la vivienda asignada no es adecuada para la unidad convivencial del adjudicatario.

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

**Primero.-** El artículo 50 de la Orden de 15 de octubre de 2012, dispone que las viviendas se asignarán en función de los cupos a que se refiere el artículo 47 de dicha Orden, la adecuación de las viviendas y el orden de puntuación obtenido por las personas o unidades convivenciales incorporadas al procedimiento en aplicación al baremo al que se refiere al artículo 51.

**Segundo.-** El apartado Noveno de la parte dispositiva de la Orden de 11 de marzo de 2022 establece que las viviendas de esta promoción de un dormitorio se adjudicarán a unidades convivenciales de, como máximo, 2 miembros; las viviendas de dos

bizikidetza-unitateei esleituko zaizkiela, eta hiru logelako etxebizitzak gehienez 6 kideko bizikidetza-unitateei esleituko zaizkiela.

dormitorios se adjudicarán a unidades convivenciales de, como máximo, 4 miembros y que las viviendas de tres dormitorios se adjudicarán a unidades convivenciales de, como máximo, 6 miembros.

**Hirugarrena.-** Zazpi etxebizitzatan logela kopurua oker jarrita esleitu zaizkie etxebizitzak esleipendunei, eta horrek urratu egiten du 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 50. artikuluan xedatutakoa, baita 2022ko martxoaren 11ko Aginduaren xedapen-zatiaren bederatzigarren apartatuan ezarritakoa ere. Beraz, akatsa antzeman eta zuzendu ondoren, beharrezkoa da esleipendunen bizikidetza-unitateei egokitutako etxebizitzak berresleitzea, eta, ondorioz, 2022ko irailaren 12ko Ebazpenaren bidez onartutako zerrendetan jasotako etxebizitza-esleipena aldatzea.

**Tercero.-** La asignación de las viviendas a los adjudicatarios realizada con el error en el número de dormitorios en siete de dichas viviendas vulnera lo dispuesto en el artículo 50 de la Orden de 15 de octubre de 2012 y lo establecido en el apartado Noveno de la parte dispositiva de la Orden de 11 de marzo de 2022 y, por lo tanto, una vez detectado y corregido el error, se hace necesaria una reasignación de las viviendas que se adecúe a las unidades convivenciales de los adjudicatarios y la consiguiente modificación de la asignación de la vivienda que consta en las listas aprobadas por resolución de 12 de setiembre de 2022.

**Laugarrena.-** Etxebizitzako lurralde-ordezkaria da ebazpen hau emateko organo eskuduna, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 54.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

**Cuarto.-** El Delegado Territorial de Vivienda es el órgano competente para dictar la presente resolución, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 54.2 de la Orden de 15 de octubre de 2012, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes.

Horiek horrela,

En su virtud,

**EBAZTEN DUT**

**RESUELVO**

Azkoitiko (Floreaga) babes ofizialeko 14 etxebizitzaren behin-behineko esleipendunen zerrendetan agertzen den etxebizitza-esleipena aldatzea (EB3-0500/16-EC-000 sustapena) eta zerrenda horien ordez ebazpen honen eranskinetan agertzen direnak jartzea.

Modificar la asignación de vivienda que consta en las listas de adjudicatarios provisionales en arrendamiento de 14 viviendas de protección oficial en Azkoitia, Floreaga (promoción EB3-0500/16-EC-000) y sustituir dichas listas por las que figuran en los anexos de esta resolución.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Etxebizitzako sailburuordeari, ebazpena jakinarazten denetik hilabeteko epean.

Contra la presente resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Viceconsejero de Vivienda en el plazo de un mes a partir de su notificación.

Alfonso Sanz Araujo
LURRALDE ORDEZKARIA
DELEGADO TERRITORIAL